


B

BARREN

TOKIKOM

Elcoeur - 744. zenb. - XVIII urtea - 2010-06-11



Agur Pilar ikastetxeari



udako ikastaroak

Mihi puntan duzu

3. maila = EGA
Iraileko azterketak prestatzeko eskolak
UZTAILEAN eta IRAILEAN
Izena eman 24a arte

Ikasle, guraso eta langabetuek matrikula erdia
Udalaren laguntzari esker

AEK EUSKALTEGIA

Plaza Txikia 3, 1.
607 601 423 - elgoibar@aek.org



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era
15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Eskerrik asko, Pako

Morkaiko Mendizale Elkarteak sortu zenean bertan zinelako. Elkartek, dauzkan 67 urteetan, ondoan izan zaituelako beti. Euskal mendizaletasunaren alde egin duzun lanarengatik. Horregatik eta beste gauza askorengatik, eskerrik asko.

Lana agindu zenuen eta ez zenuen makala egin. Euskal Mendizale Federazioa egoera eskasean zegoenenan lehendakari kargua hartu zenuen, 1971. urtean. Lau urte egin eta gero, beste batzuei utzi zenien lekua. Baina Pakoren itzala luzea da, eta lidergo garbia falta zenean, itzultzeko eskaria onartu zenuen 1986an. Aurretik, sei urtez izan zinen Morkaikoko lehendakari 50eko hamarkadan. Lana izan da agindu izan duzuna, eta bide horretan eredugarri izan zara.

Beti uztartu duzu lan hori zeureekiko maitasunarekin. Gogoan dut ekitaldi batean parte hartzeko deitu genizunean. Baietza eman zenigun berehala. Gero jakin genuen Foru Aldunditik ere beste gonbidapen bat jasota zenuela, egun berean sari banaketa batean parte hartzeko. "Niretzako lehenengo Morkaiko da" erantzun zenigun. Beti izan zara Morkaikok

eskatu dizun guztietan laguntzeko prest, eta horrenbeste lekutan hain estimutan duten norbaiti hori entzuteak hunkitu egin gintuen nolabait.

Izan ere, edozein mendi federaziotara deitutakoan nahikoa da 'Pako Iriondo' esatea, telefonoaren beste aldean miresmen hitzak entzuteko. Mendiaren inguruan dabilen jendeak maitasun handia erakutsi dizu, zuk eskaini diozun guztiaren erakusgarri.

Halabaina, Elgoibarko herriak omenaldi bat zor zizun oraindik eta pasa den larunbatean jaso zenuen. Zor dizugun guztiaren zati bat behintzat eskaintzea zen asmoa. San Pedron dago orain eman diguzunaren testigantza txiki bat. Eskerrik asko, Pako.




Andoitz Agirregomezkorta

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Lana izan da agindu izan duzuna,
eta bide horretan eredugarria izan zara, Pako"**

Lanbroa



Gosariak
 Pintxoak
 Bokatak
 Plater konbinatuak

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
 Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

TXARRIDUNA PAULANER

"PAULANER ZERBEZA" zozketa



Sariduna: IÑIGO BEREZIARTUA

Saria: Asteburu bateko egonaldia Munichen



AGUR, PILAR



Ezkerretik eskumara: Amaia Iñurrieta, Nekane Aranburu, Elena Martinez, Itziar Basurko eta Pedro Izagirre Pilarreko irakasleak.

Sei urte pasatu dira San Viatorreko kongregazioak Pilar ikastetxea ixtea erabaki zuenetik, eta bihar egingo dute ikastetxearen agur festa. Lehenengo, meza izango da San Bartolome parrokian, eta ondoren, bazkaria egingo dute eskolan. Pilar ikastetxea ixtean, Elgoibarko historia liburuaren pasarte bat amaituko da.

Ainhoa Andonegi

Iritsi da eguna. 2010eko ekainaren 12a Elgoibarko historian gordetzeko data izango da. Ikasturtea amaitzearekin batera bukatuko da Pilar ikastetxearen jarduna. 68 ikaslerekin eta 14 irakaslerekin amaitu du orain dela 84 urte hasitako ibilbidea.

1926an zabaldu zuten atek Pilar ikastetxea, Elgoibarko Kristau Eskolen Hezitzaileen ardurapean. Ondoren, Aita Marianistek hartu zuten Ikastetxearen ardura. 1942an, Espainiako Gerraren ondoren, San Biator Klerigok, eskuratu zuten Ikastetxearen hezkuntza jarduera. 2004an ikastetxea ixteko erabakia hartu zuten, matrikulazio kopuruak behera egin zuelako eta ikastetxea ez zelako ekonomikoki bideragarria. Guraso batzordearen eta irakasleen ekimenez, baina, amaiera duinagoa eman diote ikastetxeari. Gurasoen batzordeak sei urterako proiektua prestatu zuen, baina iritsi da hain urrun ikusten zuten eguna.

Itxieraren arrazoiak

Prozesua luzea izan da, baina Nekane Aranburu egungo zuzendariak itxieraren arrazoi nagusienak laburbildu ditu: “Batetik, jaiotze tasa asko bajatu da, eta orain *baby boom* garaikoak umeak edukitzen hasi badira ere, Elgoibarren ez dago hiru ikastetxe mantentzeko adina umerik. Bestalde, Euskal Eskola publikoak indar handia hartu du, eta aipatu behar da baita ere, jende gazteak erlijioarekiko duen ikuspegia gaur egun ez dela lehengoa. Eta fraideak ere gero eta gutxiago daude. Ez dago fraide gazterik”.

Ez da erraza izan sei urteko ibilbidea. Umeak murriztu ahala, irakasleak ere lana lagatzen joan behar zutelako adostu zuten, eta sei urteren buruan denak kalean egongo zirela onartzea zaila izan zela aitortu dute. “Irizpide objektibo” batzuk jarri zituzten, eta horien arabera kaleratu zuten jendea. “Despi-doak egitea ez da erraza, baina irakaslegoa une gogorrenetan ere bat eginda egon da.

Guraso asko irakasleek alde egingo ote zuten beldur ziren, baina denok hemen gertzea erabaki genuen”, esan du Nekane Aranburuk.

Irakasleak etorkizunari begira

Amaia Iñurrieta eta Nekane Aranburu orain dela 36 urte hasi ziren Pilarren lanean, 1974an. Hasieran fraideak ziren irakasleak, gero gizonezko maisuak sartu ziren eta 1974 urte inguruan hasi ziren emakumeak eskolak ematen. “Bizi osoa daramagu hemen”, esan dute biek. Etapa bat bukatu, eta beste bati ekingo diote datorren ikasturteetik aurrera.

Azken sei urteak “gogorrak” izan direla aipatu dute irakasleek, eta gurdari tira egin diona Nekane izan dela azaldu dute gainerakoek. Penaz esango diote agur Pilar ikastetxeari, baina batez ere, aurrerantzean elkarrekin egongo ez direla jakiteak tristetzen ditu. “Zer egingo diogu, ate bat ixten denean, beste bat zabaltzen da”.



MANU CONDE GURASOEN BATZORDEKO PRESIDENTEA

“Pilar ikastetxea elgoibartarrona da, eta argi geneukan herriaren beharretarako erabili behar zela”

Guraso batzordeko kide zela, 2004an jaso zuen Manu Condek Pilar Ikastetxea ixteko erabakiaren berria. Zur eta lur geratu zen. Batzordeko lehendakari kargua hartu zuen orduan, eta itxiera prozesua ikasleentzat ahalik eta arinena izan behar zela erabaki zuen batzordeak. Irakasleen, gurasoen eta Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, sei ikasturtez luzatu dute ikastetxearen ibilbidea.

Iritsi da eguna. Sinisten duzu Pilar ikastetxea betirako itxiko dutela?

Bai, ez genuen uste, baina iritsi da. 2004an hasi zen dena. Ni ordurako guraso batzordeko kidea nintzen, eta klerigoek ikastetxea utzi nahi zutelara esan ziguten. Une horretan batzordeko lehendakari zenak kargua utzi zuen, eta niri proposatu zidaten haren lekua hartzea. Baietz esan nuen. Irakasle batzuk ere sartu ziren taldean, eta lanean hasi ginen. Gurasoen batzordeak hartu zuen ikastetxearen titulartasuna eta kudeaketaren ardura.

Zein zen zuen asmoa?

Gure helburua itxiera ikasleentzat dramatikoa ez izatea zen. Ez genuen nahi umeak egun batetik bestera ikastetxez aldatu behar izatea. Hortaz, ahal zen gehiena luzatu nahi genuen ikastetxearen ibilbidea.

Zaila izan da sei ikasturte gehiago mantentzea ikastetxea zabalik?

Ez da erraza izan. Hasieran, ikastetxean zeuden ume guztiak zikloa amaitu arte irautea nahi genuen, baina hori ezinezkoa zen. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak argi esan zigun ikastetxea itxi egingo zutela, eta alde guztietatik trabak jartzen zizkiguten. Hala ere, sei ikasturte luzatzeko proiektua aurkeztu genuen, eta, Jaurlaritzak bere babesa eman zigun. Baina batez ere, gurasoen jarrera nabarmenduko nuke. Itxieraren albisteak jaso genuenean, 60 ume inguruk

laga zuten Pilar, eta bazirudien ikasle gabe geratu behar ginela, baina ez da horrela izan. Gurasoek amaierara arte matrikulatu dituzte umeak Pilar Ikastetxean.

“Pilar ikastetxea herriko historiaren parte izan da, Elgoibarko ikurra”

Etorkizunean zaharren egoitza egingo dute Pilar ikastetxean. Zer iruditzen zaizue hartu den erabakia?

Ni pertsonalki oso-oso pozik nago, berriz, eta Gurasoen batzordea ere oso gustura dago. Pilar ikastetxea elgoibartarrona da, eta argi geneukan herriaren beharretarako erabili behar zela. Elgoibar herrikoa da. Gure gurasoak eta guk geuk ordaindu dugu, eta horregatik proposatu genuen herritarrok aprobetxatzeko moduko zeozer egitea gune horretan. Zaharren egoitza egitea proposatu genuen. Udalarekin bildu ginen aurrenik, eta hortik aurrerako negoziazio guztia bide onetik

joan da. Ikasturtea ekainean amaituko da, baina abuztuaren 31n itxiko dute betirako Pilar ikastetxea.

Zuk zeuk ere Pilar ikastetxean ikasi zenuen. Zein oroitzapen dituzu?

Denetik gogoratzen dut. Fraideek beste mota bateko hezkuntza sistema zeukaten, eta tarteka, egurra ere eman ziguten. Gaur egun irakaskuntza asko aldatu da, eta irakasleek ezin dute umerik ikutu. Egia esanda, oroitzapen onak eta txarrak dauzkate, baina, oro har, ona izan zen Pilar ikastetxe-ko etapa.

Zure bi alabek ere Pilar ikastetxean ikasi dute, ezta?

Bai, bai! Familiako guztiok ikasi dugu Pilarren: aitak, nire anaiek, emaztearen aitak eta nire bi alabek. Gure garaian Elgoibarren ez zegoen beste eskolarik, eta gaur egun 70 urte inguru dituzten gizon gehienek Pilarren ikasi dute. Hasieran gizonezkoentzako bakarrik zen, eta gerora hasi ziren emakumezkoak sartzen.

Zer sentituko duzu ikastetxea itxen duten egunean?

Pena, eta ez nik bakarrik, jende askok penaz hartu du albisteak. Pilar ikastetxea Elgoibarko historiaren parte izan da, Elgoibarko ikurra. Apaiz batek eman zuen lursaila multientzako ikastetxe bat egiteko, eta orain, umeentzako izan beharrean zaharrentzako izango da.



**PELLO
ARRIETA**
Historialaria

HISTORIA LABURRA

1929an ikastetxe berria eraiki zuten Urasandiko eremuan; gaur egungo ikastetxearen zati zaharrena zen bakarrik. Pedro Mugu-ruza Otaño arkitektoak diseinatu zuen.

Eraikinak frontoi estalia zuen beheko solairuan eta goiko bi solai-ruetan ikasgelak. Azken solairuko izkin batean fraideak bizi ziren. Pilarreko Andre Mariari eskainitako kapera txikia ere ezagutu genuen lehenengo solairuan, 60ko hamar-kadan.


Primo de Riveraren diktadura garaia zen. Udalak eta guraso batzuek mutilentzako ikastetxe erlijioso baten beharra ikusi zuten. Izan ere, Salletarrek mendearen hasieran (1905-1914) bederatzirte Altzola dorretxean egon ondoren, alde egin zuten. San Frantzisko eliza bota eta gero, apezpikutzak 6.000 pezeta kobratu zituen orubeagatik, eta ikastetxe erlijioso bat eraikitzeko erabiliko zela adostu zuen Udalarekin.

Marianistak izan ziren Pilar ikastetxeko maisu eta hezitzaileak gerra zibila arte, eta ondoren, ikastetxea urte batzuetan itxita egon eta gero, San Viatorrekoak aritu ziren XX. mendearen bukaera arte. Ramon Ormaetxea parrokoak, Alkorta alkateak, Jose Peñalbak eta Jose Rezolak San Viator anaien atea jo zuten Elgoibarrera etor zitezten, eta ikastetxeko batzordeak eta aita Klemente Leyguesek, San Viator ordenako ordezkariak, kontratua sinatu zuten 1942ko ekainaren 11n.

(Elgoibar iragana eta oraina libururitik)



Pilar ikastetxearen hasierako urteetako eraikina.



2001ean jaiotakoak.



51-52 ikasturtea.



63-64 ikasturtea.



umeak.



2004an protestak egin zituzten.

PILAR IKASTETXEA, ARGAZKITAN. EKAINAREN 13RA ARTE EGONGO DA ERAKUSKETA ZABALIK, KULTUR ETXEAN.

Argazki gehiago: <http://pilarikastetxea.mifotoblog.com>

Pilar ikastetxea airetik.



Ikasleak laborategian, praktikak egiten.



KRISTIAN
SANZ
Kasle onia

OROITZAPENAK

Etexeko balkoitik ikusten da tinko Pilar Ikastetxeko eraikina. Aspaldi da jada bere gelen eguratsa azken aldiz sumatu nuenetik, baina askotan egoten naiz begira iraganeko gertaerak gogoratuz. Ez dago ahazterik, han igaro genituelako gure bizitzako lehen urteak, gure izaera eraiki eta landu zutenak. Han ezagutu genituen lehen adiskideak eta bizi lehen esperientzia onak eta txarrak.

Instant batean begiak itxi eta txirrinak jo du, RIIIIINNGG!. Errekreoko ordua! Batzuk futboleant ari dira, trangoz betetako galipotezko patioan. Besteak kaniketan zuloz betetako harmailetan. Izkina batean gometan saltoka ari dira. *Txorro, morro, piko, taio, ke!*, entzuten da atzekaldean. Denean da zarata eta iskanbila. PIIII!!! Txistu zarata entzun eta denok lerroan jarri gara gelara bueltatzeko. Badirudi atzo izan zela, baina bizitzan denak du hasiera eta bukaera, eta ikastetxeari 84 urte pasa ondoren, heldu zaio erretiroa hartzeko ordua. Hala ere, ez da izango nolanhiko atsedena, duintasunez betetako bat baizik, Errezabal Guraso Elkarteak eta Gipuzkoako Go-tzaindegiak txikitari irakatsi zizkiguten gizatasun eta elkartasun baloreak hain zailak diren ekintzen bidez erakutsi dituztelako.

Gure ikastetxea badihoa! - diote kalean. Baina lasai egon, agurra ez da betirako, aurpegia eraldatu eta gero izango dugu ikastetxearen izateko arrazoia berriro gurekin. Haurtzaroan izan zena ametsen hazi, zahartzaroan izan dadila atsedena kabi. Bejondaizuela hau posible egin duzuen gurtzio!



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Larrialdi zerbitzua Elgoibarren!

Elgoibarko ezker abertzaleak bat egiten du anbulategiko langileek, Eusko Alkartasunak eta bestelako herritarrek abiatutako borrokarekin, eta era berean, herrian osasun zerbitzu duinak izan ditzaugun lan egiteko gure konpromisoa azaltzen dugu.

Bizi dugun krisi garaian, badirudi, herritarren bizkar egin nahi dutela aurrera batzuek. Gero eta gehiago dira ditugun betebeharrak, baina eskubideak gero eta gutxiago antza. Elgoibarren larrialdi zerbitzua kentzea atzerapauso handia litzateke, eta ez dago arrazoituta. Gurea bezalako herri batean zerbitzu hori bermatu beharrekoa dela uste dugu, eta ez dugu inon ikusten kontrakoak dioen behar eta erabilera neurketarik. Aldiz, beste herri batzuetan, anbulategietako zerbitzuak indartzera doaz, kasualitateak kasualitate. Alderdikeria herritarren osasunaren gainetik ezartzea baino gauza zitalagorik!

Hori guztiagatik dei egiten diogu herritar orori gaueko larrialdi zerbitzua bermatua izateko bere ekarpena egin dezan, abiatutako sinadura bilketetan sinadura emanaz zein egoera salatuz. Erabaki eta zenbaki guzti hauen atzean, azkenean, pertsonak eta egoera errealak daudelako.

Elgoibarko Ezker Abertzalea

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutizik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Eneritz Lazkano, Izaro Etxegibel MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odría, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza, Jairo Berbel. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Oihana
Tarragual

Don Angel,
zuri idazten ari
naizela, nire semea
ostikoka ari zait sabelean.
Laster etorriko da mundu zoro
honetara.



Angel
Bazterretxea

Gogoratzten al duzu zenbat ume bataiatu dituzun zuk?
Eta une horietan zer pasa izan zaizun burutik? Nolakoa izango ote
da ume hau: lotsatia, alaia, jenio bizikoa...? Edo zenbat zaplazteko
emango ote dizkio bizitzak? Pentsatuko zenuen, akaso, makina bat
aldiz.

“Nire azken zutabe hau ama guztiei eskaini nahi diet, eta aitaren baimenarekin, bereziki nireari”

Ama izatea ez da lan erraza, baina hain da aberasgarria... Ba al
zenekien pertsona bat hiltorian dagoenean, 20, 80 edo 100 urte izan,
azken uneetan ere ama izaten duela ahotan?

Naturak gure kumeak babestera garamatza. Lehengokoan nire
tripa handiarekin kaletik nindoala, emakume batek esan zidan seme
alabak beti, une oro, zituela pentsamenduan. Aspalditik nekien hori,
baina bederatzi hilabetean semea sabelean izan eta gero, kontura-
tzen hasia naiz gure amek, zureak ere bai Don Angel, nolako maita-
suna eman diguten bizi osoan, maitasun inkondizionala, benetakoa,
garbia...

Nire azken zutabe hau, beraz, ama guztiei eskaini nahi diet, eta
noski nire aitaren baimenarekin, nire amari bereziki. Ta zuri Don An-
gel, agur esan beharrean gero arte esango dizut. Kalabazak eman
behar dizkizut, eta BARRENERako bikotekide berriaren bila hasi behar-
ko duzu. Nik, Aiur besoetan dudala, gustura irakurriko ditut zure kon-
tuak. Zorte on ibilbide berrian!

Oihana... eta Aiur: Izan ere, biok zaudete bat
eginda aspaldi honetan. Horregatik agurtzen zai-
tuztet biok. Zenbat ume bataiatu ditudan galdetzen
didazu. Parrokietako liburuetara joan beharko nuke,
baina berrogeita hamar urte hauetan pilo bat izango dira.



Mutrikun, Astigarribian, Azpilgoetan, Garagartzan, Altzolan eta bes-
te lekuren batean, asko bataiatu ditut. Nik guztiei hauxe esaten diet:
“Nolakoa nahi duzue izatea hemen dagoen haur hau? Gaixoa, ton-
toa, zatarra, gizajoa, berekoa? Eta aldamenen daudenek ez dute,
jakina, horrelakorik entzun nahi izaten. Eta esaten baldin badiezu ar-
gia, azkarra, espabilatua, guapoa, eta bihotz onekoa izatea nahi du-
ten baietz erantzuten dute guztiek. Eta nik zera esanez amaitzen
dut: “Niretzako bataioa hori da: Jesusek ere hori egin zuelako: poz-
tu, irakatsi, lagundu, sendatu, penak kendu eta bizitza duin bat egi-
ten lagundu. Hori da benetako bataioa. “Nik ere hori opa diot orain
zure sabelean ostikoka ari zaizun ume horri: bizitza alai bat, ilusioz
betetakoa eta eguneroko gauzei aurre egingo diona. Horretarako
hasi zeuregandik eta zeure senarraregandik, eta jarraitu ilusioz
zuen seme horrek guk baino bizitza hobeago izan dezan.

“Gero arte, Oihana. Gusto handia izan da elkarrizketa hauetan zurekin aritzea”

Eta gero arte, Oihana. Gusto handia izan da elkarrizketa hau-
tan zurekin batera aritu izana. Orain Aiur ondo etorri dadila, eta po-
zez bete ditzala inguruak: birramona, aittona, amona Maritxu, osa-
ba futbolista, Mutrikuko familikoak eta abar eta abar. Agur, eta Zo-
riolak.



Elgoibarko Udala



Langabeziak gora egin du, eta krisiak familia askori eragin die.

Krisiak eragin dizu oporrak prestatzeko orduan?



Myriam Villasante
50 urte, irakaslea

Irakaskuntzan egiten dut lan, eta soldataren %5a jaitsiko diguten arren, oraingoz ez dit krisiak asko eragin. Azken urteetan Europa aldera joan izan gara, baina aurten semeek Irlandan pasatuko dute uztailea ingelesa ikasten, eta abuztuan lagunekin egin nahi dutenez, Hendaian geratuko gara.



Lucia Molina
39 urte, begiralea

Egia esan behar badut, oraingoz ez dit gehiegi eragin krisiak. Oporretatik etorri berri naiz, eta datorren astean berriro joango naiz. Gurasoek Torreviejan etxea daukate, hondartza ondoan eta hara joateko asmoa daukat. Momentuz badut oporretan joateko aukera.



Blas Gonzalez
55 urte, muntatzailea

Emaztearen lanaren arabera egiten ditugu oporretako planak, bazueta abuztuan lan egin behar izaten duelako. Dena den, krisiak izugarri eragin dit. Itziarko CME enpresan egiten dut lan, eta lau hilabete daramatzat kobratu gabe. Normalean Badajoz aldera joaten gara.



Juanjo Gurrutxaga
52 urte, erizain laguntzailea

Nire lanaren ondorioz azken urteetan ez naiz oporretan joan, eta aurten ere ez dut uste joango naizenik. Ospitale pribatuan egiten dut lan, eta krisiak ez dit gehiegi eragin, baina emazteari bai. Etxean, oro har, igarri dugu eta oporrak izango banitu ere, ez ginateteke inora joango.

ESKERTZA

PIEDAD MADARIAGA LASKURAIN



2010eko ekainaren 6an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

CLAUDIA LECEA IBAÑEZ



2010eko ekainaren 2an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





Kalerako karteletan hizkuntza gehiago zaindu beharko luke Udalak:

“Oin Alai programaren barruan kartelak jarri dituzte umeak biltzeko guneetan, eta San Roke kalekoa “Q” hizkia-ekin idatzi dute. Benetan lotsagarria iruditu zait. Elgoibar bizi-bizixa aldarrikatzen dute, eta toki guztietan ageri da lema hori, baina badirudi euskara ez dagoela oso bizi gure udaletxean”.



Altzolako lokal soziala auzotar guztientzat izan beharko litzateke: “Altzolako lokal soziala auzoko bizilagun guztiok erabili beharko genuke. Lehen eskolak zeuden lokal horretan, eta orain auzotar batzuk erabiltzen dute euren kontuetarako, eta nire ustez, denok dugu lokal hori erabiltzeko eskubidea”.

Herri Eskolako umeen jaialdia ikusteko bi sarrera bakarrik eman dituzte ikasle bakoitzeko: “Hiru egunetan banatuta egin dute aurten Herri Eskolako umeen jaialdia, eta ikasle bakoitzeko bi sarrera eman dizkigute gurasoei. Bi seme ditugunok arazoak izan ditugu, beste umea ezin izan delako Herriko Antzokira sartu, eta aiton-amonek ere kanpoan geratu behar izan dute. Nire ustez, hobe izango litzateke Herri Eskolako patio berrian egin izan balute jaialdia. Herriko Antzokia alokatzeko erabili den diruarekin ohol-tza bat jarri daiteke, eta han denok kabituko ginatke. Hurrengorako kontuan edukitzea gustatuko litzaiuke”.

Ekaineko barixakuetan kultur ekitaldiak antolatzea ondo dago, baina ez beste zerbitzu batzuk kenduta: “Ondo iruditzen zait Madalako gunea indartu nahi izatea eta barixakuetarako ekintzak antolatzea, baina horren ordez zine zerbitzua kentzea ez zait ondo iruditu”.

Zerosette akordeoi orkestraren kontzertua ederragoa izango litzateke leku itxi batean: “Trinitate jaietan Zerosette orkestrak kontzertua eskaini zuen Madalan, eta nire ustez, ez zen lekurik aproposena izan. Izugarri gustatzen zaizkit horrelako taldeak, baina leku itxietan akustika hobea izaten dela iruditzen zait. Hala ere, polita izan zen kontzertua. Maila handiko taldea da, eta jendeak izugarri gozatu zuen. Hurrengorako leku aproposagoa aukeratzeko eskaera egin nahiko nuke”.



Txalo bero bat Ana Jesus Ansola irakasleari: “Mila esker egindako guztiagatik. Sekulako zortea daukagu zu izateaz gure irakasle. Segi horrela! Musika eskolako ikasleen partez”.



Deba ibaia lehengoratzeko plana aurkeztu dute Debegesak, Urak Euskal Agentziak eta Debabarrenako zortzi udalerriek

Ibaia garbitu eta fauna eta flora aztertzeko konpromisoa hartu dute, besteak beste

Deba eta Ego ibaietako ingurunea leheneratzeko eta balioan jartzeko programa –Bizigura– aurkeztu zuten joan zen barixakuan, Altzolan. Debegesak eta Urak Euskal Agentziak elkarlanean sustatutako ekimena da Bizigura, eta ekitaldian Debabarrenako zortzi udalako ordezkariak parte hartu zuten, Juan Angel Balbas Debegesako zuzendariarekin eta Iñaki Atxukarro Jaurlaritzako Lurralde eta Uren Antolamendurako sailburuordearekin batera.

Ekintza Planak Deba ibar osoari eragiten dio, eta ingurumenari, gizarte arloari eta alderdi ekonomikoari lotutako ekintzak proposatzen ditu, besteak beste. Deba ibaia Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko ibairik “degradatuena” dela ohartarazi zuen Juan Angel Balbasek, eta ondorioz, uholde arriskurik ez denean behinik behin, Debabarrenako udalerriak “ibaiari bizkarra emanda” bizi direla gaur egun.



Bizigura programaren aurkezpenean parte hartu zuten agintariak, Altzolan.

Ibaiaren historia, ingurumen eta gizarte baloreak eta ibaiari esker sortu den aberastasuna ere ahaztu ditu eskualdeak, Balbasen hitzetan. Eskualdeari izena ematen dion ibaia izaki, udalerrri guztiak batzen dituen elementua dela adierazi zuen, eta hortaz, ibaiaren lehengoratzean den laguntza ezinbestekoa izago dela.

Debegesak sustatutako Bizigura Ekintza Planaren bizkarrezurra honako ekintzek osatzen dute, besteak beste: Deba ibar osoa saneatzea, ingurumenaren leheneratzea, fauna eta floraren azterketa, espezie inbaditzaileak zaintzea, eta aisialdiarekin lotutako azpiegituren aukera aztertzea.

Arnaldo Otegiren aldeko kamisetak salduko dituzte gaur Plaza Handian



Arnaldo Askatu, Politika Askatu herri plataformak Otegiren aldeko kamisetak salduko ditu gaur Plaza Handian, 18:00etatik aurrera. Maiatzaren 15ean aurkeztu zuten plataforma, bi helburu nagusirekin: Arnaldo Otegiren kontrako “injustizia” salatzen eta haren senitartekoei babesa agertzeko. Hilaren 29an, berriz, sinadurak batu eta kamisetak sal-

tzeari ekin zioten, eta gaia Udalaren osoko bilkuran aztertzea lortu zuten, mozio bat aurkeztuta. Udalaren gehiengoak onartu zuen mozio hura. Bederatzi boto jaso zituen alde (EAJ, EA eta Aralar) eta bost kontra (PSE-EE eta PP). Orain arte lortutakoaren balorazio positiboa egin dute plataformako kideek, eta beste ahalegin bat eskatu diete herritarrei.

Gaurko sinadura bilketa eta kamiseten salmentaren ondoren, hilaren 25ean, Nahaste-borraste antolatuko du Kimetx elkarteak. Kirol proba bat da Nahaste-borraste, Elgoibartutako triatloi antzeko bat. Bizikletan ibili ostean, Plaza Handian 25 kiloko zakua lepoan hartu eta San Bartolome eta Errosario kaleetatik itzuli bat korrika egin beharko dute parte hartzaileak, gero zakua Plaza Handian laga, eta korrika segitzeko. Antolatzaileek Arnaldo Otegiren kamiseta janzteko eskatu diete parte hartzaileei nahiz ikusleei, eta nahi duenak egun horretan bertan erosteko aukera izango du, Plaza Handian jarriko duten salmenta postuan.

Ekainaren 26an, berriz, 12:00etan, elkartasun argazki bat ateratuko dute Plaza Handian, eta parte hartzera deitu dituzte plataformaren eskaerarekin bat egiten duten guztiak.

Izena 'Oin alai'



Astlehenean jarri zuten abian *Oin alai*, 5 eta 10 urte bitarteko umeak eskolara oinez joateko programa, proba modura, eta lehenengo egunean trikitilariak lagunduta egin zuten ikastetxera arteko bidea haurrek. Ikastolako eta Herri Eskolako 121 ikasle 40 boluntariok eta udaltzainek zainduta egingo dute bidea. Horretarako, ibilbideak eta ordutegiak zehaztu dituzte. BARRENEK haurrekin batera egin zuen bidea iragan eguaztenean, eta www.ElgoiBARREN.net atarian daukazue bidea.

Datua %41,58

Hamar elgoibartarretik lauk berba egiten dute euskaraz kalean, Elgoibarko Udalak egindako neurketa baten arabera. Azterketa hori egin ahal izateko, 6.385 elgoibartarren hizkuntz jokaera aztertu dute. Datu horiek urtez urtekoekin alderatu dituzte gero, eta ondorio garbia atera dute: Elgoibarren, inguruko herrietan bezala, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%56,5). Duela bi urteko neurketako datuekin konparatuta, berriz, ikusi dute adinekoen artean ez beste adin tarte guztietan gora egin duela euskararen erabilera.

Irudia Palestinarren aldeko elkarretaratzea

Israelgo soldaduek Palestinara giza laguntza zeraman nazioarteko konboiaren kontra egindako eraso salatzeke, elkarretaratzea egin antolatu joan zen domekan Attawasol kultur elkarteak. Israelek egindako sarraskiak salatu eta Nazio Batuen Erakundearen jarrera "epela" gaitzetsi zituzten elkarretaratzean parte hartu zutenek. Nazioarteko uretan eraso zion Israelek nazioarteko konboiari, eta barruan zihoazen hamar lagun hil zituen gutxienez.



1955ean jaiotakoen kinto bazkaria, hilaren 19an

Aurten 55 urte beteko dituztenek kinto bazkaria egingo dute bihar zortzi, ekainaren 19an, Sigma jatetxean. Antolatzaileek gogoratu dute bihar amaitzen dela izena emateko epea. Horretarako, interesatuek 60 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako ondorengo kontu korrante honetan: 3035 0007 25 0071116963.

Udalbiltzaren aldeko elkarretaratzea antolatu dute zapaturako

Udalbiltzaren Aldeko Taldeak elkarretaratzea antolatu du zapaturako, Espainiako Auzitegi Nazionalan Udalbiltzaren kontra hasiko duten epaiketa salatzeke. Plaza Handian egingo dute elkarretaratzea, 12:00etan. EAK, Aralarrek eta Ezker Abertzaleak bat egin dute deialdi horrekin, eta "Madrilen azkeneko astakeria salatzeke" parte hartzera deitu dituzte herritarrek.

Hilaren 16an, emakumea eta lan merkatuari buruzko hitzaldia izango da Eibarren

Emakumea eta lan munduaren gaineko hitzaldi bat antolatu du Emekinek datorren asteazkenean, hilaren 16rako, Eibarren. Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako programa da Emekin, emakumeei enpresak sortzen laguntzeko asmoz sortutako egitasmoa. Eibarko Portalea kultur etxean izango da hitzaldia, doan, 19:00etatik aurrera.

Kuadrillategikoek egin dute zozketa

Kuadrillategikoek egin dute erriren zozketa eta hauek izan dira zenbaki saridunak: 1.084 eta 2.094. Bestalde, gazta baten pisua asmatzeko lehiaketa Mari Karmen Bizkarrondok irabazi du. 1.240 gramo pisatzen zituen gaztak. Saridunei Elgoibarko Izarratik pasatzeko eskatu diete, eta Idoiatz galdetzeko.



Asier Landa

Sukaldaria

Produktuaren tratamendu onenari dagokion Mas Gastronomía saria eskuratu berri du Mendaroko Landa erretegiak. Pedro Subijana, Hilario Arbelaitz, Andoni Luis Aduriz, eta izen handiko beste hainbat sukaldarirekin batera jaso zuen saria Asier Landak, Donostian, joan zen maiatzaren 19an. Hogeita zortzi urte badi-ra Teofila Muguruzak eta Juan Mari Landak, Asierren ama eta anaiak, jabetxea zabaldu zutenetik, eta urte horietan guztietan egindako lanaren aitortza gisa hartu du saria Landa jabetxeko lantaldeak, Landako familia txikiak.

Ainara Argoitia



Asier Landa, Jaione Longarte, Idoia Zulaika eta Juan Mari Landa, jabetxeko atarian.

“Talde lanean dago gure sekretua”

Ez da makala jaso berri duzuen saria. Espero zenuten?

Espero? Ez, ez. Handia izan da. Beti da polita jendeak norbere lana aintzat hartzea, baina sari hau berezia izan da. Sari on asko zeuden han, baina bat aukeratzeko aukera eman izan balidate, hauxe hartuko nuke neuk ere. Produktuaren kalitatea eta produktu horri ematen zaion erabilera baloratzen ditu, eta niretzako horixe da sukaldari

dari batek jaso dezakeen lorarik ederrenetako bat. Produktua mimatzea urrezko araua da sukaldaritzan, eta hori saritzea itzela da. Oso gustura gaude, egia esan.

Non dago Landa jabetxearen sekretua?

Sukaldaritzan ez dago aparteko sekreturik: produktu onekin lan egitea, horixe da hemen sekretua. Munduko sukaldari onenak ere ezingo luke ezer egin produktu eskasak emanda. Hemen ez dago miraririk. Horre-

gatik, garaian garaiko produktuak erabiltzea gustatzen zaigu guri, orduan egoten direlako onenean. Ilarrak eta sisak asko erabiltzen ditugu sasoi honetan, adibidez. Arraina, berriz, urte guztian jartzen dugu, baina gehiago negu partean, eta, almejek eta halakoek, berriz, udan galdu egiten dute, eta saiitzen gara hori mimo handiagoz zaintzen. Ehiza sasoiaren, berriz, jende asko etortzen da ehizakiak jatera. Geu ere ibil-

tzen gara ehizan, perretxikotan, eta baita angulatan ere, eta gustatzen zaigu saltsa horretan aritzea.

Zeren arabera aukeratzen dituzue produktuak? Nor arduratzen da hortaz?

Ezagunekin, gertukoekin, lan egitea gustatzen zaigu. Mendaro bertako baserriarekin harreman estua daukagu, esaterako. Orain erabiltzen ari garen ilarrak, adibidez, Lasalde baserrikoak dira. Gurean, anaia joaten da sarri erosketak egitera, baina bestela, baditugu konfiantzazko hiru-lau hornitzaile ere. Zerbait berezia ikusten dutenean abisatzeko eta gordetzeko esana diegu, eta fin betetzen dute. Hemengo uretan arrantzatutako amuko hiru-lau lupi eder iritsi badira, ia gordeko dizkiguten galdetzen digute. Jendeak esker-tzen du gero platerera ateratakoan.

Bertakoa ez denean esateko ohitura daukazue, eta horixe da gastronomia kritika guztietan zuen alde nabarmentzen dutena. Bertakoa ez bada, bezeroari esan egin behar zaio-eta!. Ez da gauza bera Azoreetako edo Tarifako bisigu bat edo hemengo bat. **Jatetxe txikia, baina gertukoa da zuena. Hala diote zuen kritikoek.**

Barru eta kanpo, 60 bat lagunentzako lekua dago hemen. Langileak, berriz, etxe bueltakoak gara, eta bakoitzak badaki zein den bere egitekoa. Nire anaia gehiago irteten da jangelara. Bera da harreman publikoetarako gizona gure etxean. Sukaldean, berriz, neuk daukat aginte makila, eta airean erabiltzen ditut denak. Neu naiz etxeko tipo arraroa. Zorrotza naiz oso sukaldean, maniatiko xamarra ere bai askotan, eta haserre bat baino gehiago izaten ditugu egunerokoan. Arrautza eskalfatuak egiten ere zenbat arrautza ez ote ditut nik alperrik galdu! Nik nahi dudan moduan gelditzen ez badira, hartu eta denak zaka-rrontzira! halakoxea naiz ni. Baina, beste ezeren gaintetik, talde bat gara gu. Bost laguneko familia bat gara, eta talde lan horretan dago gure sekretua. Ardoa ere izan daiteke ona, baina lagun on batekin hartuz gero, beti izango da hobea. Hemen ere gauza bera. Alferrik da nik produktua mimatzea, gero zerbitzatzen duenak ez baditu bezeroa nahiz lankideak mimo berekin tratatzen.

Zu zeu noiz eta nola hasi zinen hemen?

Amak eta anaiak zabaldu zuten taberna. Juan Mari Debako Bordatxon ibilia zen hiru-lau urtean, eta etxean jatetxea jartzea erabaki zuten. Gure familian beti egon da sukaldarako eta ardotarako tradizio handia, eta gustuko genuen geuk ere. Nik orduan Institutuko ikasketak amaitu berri nituen, eta sukaldean hasi nintzen lanean, amari ikasitakoarekin. 1982a zen. Gogoan daukat hemen eman genuen lehenengo bazkari handia ere. Garagartzako aldapako bizilagun baten bataio eguneko bazkaria izan zen, etxe-etxeko mutil batena. Gero, apurka-apurka, gauza berriak probatzen hasi nintzen, eta neure kabuz ikasten. Produktu asko alferrik galduko nituen, baina eginak erakusten du. Autodidakta izan naiz ni.

“Zorrotza naiz oso sukaldean, maniatiko xamarra ere bai sarri”

Kartara zerbitzatu duzue beti?

Ez, ez. Hasieran, eguneko menua eta karta eskaintzen genituen, baina urteekin konturatu ginen bat edo bestea aukeratu beharra zegoela, gauzak txukun egin ahal izateko. Kartaren alde egin genuen. Apustu handia izan zen, eta ez zen batere goxoa izan, hogei urte baino gehiagoan bezero izan genituenei eguneko menua emateari utziko genuela esatea. Zirt edo zart egin beharra zegoen, baina, eta momentuz ez daukagu hartutako erabakiaz damutzeko arrazoirik.

Makina bat jende pasatuko zen hemendik Landa jatetxea ikusi ere egin gabe. Hala ere, zuen jatetxea beti dago gainezka. Nola egiten duzue hori?

Hori da gure *handicap*-etako bat. Badira bila ibili, eta aurkitu gabe joan direnak ere, bai. Kanpotik etortzen den jendea estu ibiltzen da askotan taberna topatzeko. Mendaro oso txikia da, eta askotan, bazkalor-

duan-eta, ez da nori galdeturik ere izaten, kalean ez delako inor ibiltzen. Gure erronka nagusia hori da. Beste jatetxe batzuetara inertziak ere joan zaitezke, baina guk erakarri egin behar ditugu. Hala ere, ahoz aho-koak ondo funtzionatzen du, eta horixe izaten, da gure kasuan behintzat, egin diezaguketen publizitaterik onena.

Zein da zuen espezialitatea?

Arraina zerbitzatzen dugu asko, eta gehien-gehien *rodaballoa* (erreboiloa), zailantzarik gabe. Bisigua ere saltzen dugu, baina erreboiloak marka guztiak hausten ditu hemen. Hala ere, badaukagu beste plater bat oso estimatua dena gure bezeroen artean: onddoak foie-arekin eta arrautza eskalfatuarekin.

Horrenbeste gorespen jaso ondoren, ez al duzue pentsatu taberna handitzea edo?

Ez, ez. Nahikoa dugu daukagunarekin. Lan gehiago ez dugu behar. Erreka estaltzen ez badugu, gainera, nora hazi ere ez daukagu! Daukagun lekua beteta gustura gaude gu. Eskaintzak jaso ditugu, hoteletako jangelen kargu egiteko-eta, baina ez. 400 lagun baino gehiagorentzako jangela zeukan hotel bateko sukaldearen kargu egitea ere proposatu ziguten, baina gure lekua hemen dago, Mendaron.

Bestela ere jakina da hemen inguruotan, baina prentsan irakurri dugu sukaldaritzaz bizi duzuen pasio berarekin bizi dituzuela Realaren gorabeherak. Jo dezagun Lehen Mailara igotzea Landa jatetxean ospatzea erabakitzen dutela. Zer jarriko zenieke?

Pipermina jartzea merezi dute, sufriarazi diguten guztiagatik, baina, ia, lagaidazu pentsatzen... Hasteko, almejatxo batzuk plantan. Gero, onddoak foie-arekin eta arrautza eskalfatuarekin, eta ganba batzuk plantan ondoren. Eta horren ostean, erreboiloa-edo. Bigarren Maila oso gogorra da, eta Lehenengo Mailara igotea ganoraz ospatu beharra dago. Xanpain frantsesarekin ospatuko dugu guk hemen. Hozkailua bete-bete egingo dugu egun horretarako. Oraindik gogoan daukat Celtaren kontrako partida hura. Mailari eustea geneukan jokoa eta lortu genuenan, Don Perignon ardo botila hustu genuen. Bizi dugu Realak, nahiz askotan osasuna ere galduarazi digun.

Idotorbe-San Pedroko elkarteak inauguratu dute, elkarte gastronomikoa baino gehiago izateko helburuarekin

Pako Iriondo omendu dute, mendizaletasuna sustatzeko egindako lanagatik

Jende ugari batu zen zapatuan Idotorbe-San Pedroko elkartearen inaugurazio ekitaldian. Ekitaldi hori, era berean, Pako Iriondo Euskal Herriko Mendi Federazioko ohorezko presidentea omentzeko baliatu zuten Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskal Mendizale Elkarteak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak.

Campezo eraikuntza enpresak egin ditu Idotorbeko elkarteko obrak, eta 511.000 euro inguruko aurrekontua izan du horretarako. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak jarri dute 320.000 euro inguru, eta Udalak jarri du gainerakoa. Ohiko elkarte gastronomiko bat baino gehiago da, hala ere, Idotorbe-San Pedroko elkarte berria. Auzotarrek bilgune gisa erabiliko duten lokalaz gain, proiektu berritzaile bat garatzeko lekua ere egin baitu bertan Udalak. Funtsean, hiru gune izango ditu elkarte berri horrek: auzotarren bilgunea, hitzaldi gela eta eguneko zentroa.

Auzotarren elkarteak Idotorbe-San Pedroko auzotarrek eurek kudeatuko dute, eta momentuz 40 bat bazkide ditu. Lokal horren ezkerreko aldean, hitzaldi gela dago. Elgoibarko Udalak kudeatuko du lokal horren erabilera. Hitzaldiak nahiz



Bere omenez jarri duten eskultura ondoan omendu zuten Pako Aristi mendizalea.

ikastaroak emateko egokitutako gela da, eta Alfredo Etxeberria alkateak inaugurazio ekitaldian jakinarazi zuenez, zabalik dago edozein enpresak edo elkarteak erabili ahal izateko.

Hasieran eguneko zentro izateko diseinatu zuten gunea da, baina, Idotorbe-San Pedroko elkarte berri horretako gunerik deigarriena. Gizarteak bazter utzitako jendeari eta ezintasunen bat duten haurrei nahiz adineko jendeari laguntzeko sortu

dute. Anateusk izena jarri diote proiektu horri, eta oraindik hastapenetan dagoen arren, inguruotako erreferentziatzeko zentro bihurtu nahi dute proiektuaren sustatzaileek. Hala jakinarazi zuen Jesus Bilbaok, talde horren ordezkari gisa aurkeztu zenak.

Jaiak, elkarte berriaren aitzakian

Trikitalariek eta bertsolariek girotu zuten Idotorbe-San Pedroko elkarte berriaren inaugurazio ekitaldia. Meabek eta Narbaizak jardun zuten bertsotan, eta Baltzola anaiek, soinua eta panderoarekin. Ekitaldian Pako Iriondo mendizalea ere omendu zuten. Haritz dantza taldekoek egin zioten aureskua, bere omenez eraikitako eskulturaren ondoan, eta Elgoibarko Udalak eta Morkaiko Mendizale Elkarteak oroigarri bana oparitu zizkieten, herriaren izen ona zabaldu eta mendizaletasuna sustatzeko egindako lanagatik. Ondoren, herri kirolen txanda hasi zen. Goenatxo eta Goikoetxe harri jasotzaileek eta Bihurri eta Flores aizkolariek parte hartu zuten, eta Evaristo Valdesek Juana-tegi baserritan hazitako idiak ikusteko aukera ere izan zuten Idotorbera gerturatu zirenek.



Idotorbe-San Pedroko elkarte berriaren ikuspegi osoa. Argazkia: Mikel Askasibar

Aitor Iturbek ordezkatu du Jagoba Arrasate Haundiko entrenatzaile postuan

Guineak jasoko du jokalaria erregularrenaren saria

Aitor Iturbe Eibar B taldeko entrenatzaile ohiak beteko du Jagoba Arrasateren lekua, Haundiko entrenatzaile postuan, eta Angel Garate elgoibartarra izango da bere laguntzailea. Arrasatek Realeko jubenilen taldea entrenatuko du datorren denboraldian. Haundik, bestalde, gaur gauean egingo du denboraldi amaierako afaria Sigma jatetxean, eta bertan, denboraldiko jokalaria erregularrenaren Idarraga Saria emango diote losu Guineari.



Angel Garate eta Aitor Iturbe.



Dani Arenas zortzigarren izan da Espainiako fitness txapelketan

Espainiako fitness txapelketa jokatu du Dani Arenas elgoibartarrak Cadizen, eta zortzigarren postuan sailkatu da. Asteburu osoko proba "gogorra" izan da, eta Espainiako kulturista onenekin lehiatzea oso esperientzia positiboa izan dela adierazi du elgoibartarrak. Dani Arenas, oro har, "pozik" dago erakutsitako mailarekin. Hemendik aurrera, datorren urterako helburuak eta planak prestatzeari ekingo dio.

Mintxetako igerilekuak bihar zabalduko dituzte

Mintxetako aire libreko igerilekue-tako denboraldia bihar hasiko da. Ekainean eta uztailean 11:00etatik 21:00etara irekiko dituzte, astelehenetik barixakura, eta asteburuetan, 10:00etan. Abuztuan eta irailean, bestalde, 20:00etan itxiko dituzte. Interesatuak uda denboraldirako bonoa egin dezakete: 18 urtetik gorakoei 58 euro ordaindu beharko dute, eta adin txikioei, 52 euro. Familiako bonoak 103 euro balio ditu elgoibartarrentzat, eta kanpokoentzat, 111 euro. Informazio gehiago eskuratzeko kiroldegira deitu daiteke (943 744 112).

Herri kirolen ginkana egingo dute domekan Altzolan

Zubibai elkarteak gazte zein nagusientzako herri kirolen ginkana antolatu du domekarako. Partaideek egur pilaketan, txinga eroaten, lokotx bilketan, zaku lasterketan eta soka tiran egin beharko dute. Irabazleak sari sorpresa bat jasoko du. Ikuskizuna 12:30ean hasiko da, Altzolako frontoian.

Pilota jaialdia gaur, Mendaron

Mendaroko Udalak pilota jaialdia antolatu du gaur gauerako. 21:00etatik aurrera jokatuko dira partidak Goñati pilotalekuan. Gorosabel-Egiguren, Arrutia-Galarraga eta Zubizarreta-Perez izango dira partaideak.

Tenis eskolako umeek oporrak hartu dituzte

Amaitu dute denboraldia, eta 40-15 tenis eskolako umeek oporrak hartu dituzte. Ume bakoitzak diploma eta domina bana jaso zituen ikastaroan egindako ahaleginaren ordainetan.

40-15 tenis elkarteak, bestalde, uztaileko tenis ikastaroak antolatzeko asmoa du.



Unai Salegi 'Sarobe' nagusitu zen domekan Mendaron jokaturako apustuan

'Rubio' iritsi zen aurrena Lizarpera, baina aizkoran gehiago izan zen 'Sarobe'

Sekulako ikusmina sortu zuen domekan Unai Salegi *Sarobek* eta Mikel Ugartetxea *Rubiok* Mendaron jokaturako apustuan. 11:00etan hasi zuten jokoa, baina 10:30erako Berasaluze baseritik gorako bide bazter guztiak autoz josita zeuden, eta Lizarpe gainean ere ez zegoen gehiagorentzako lekurik. Lanbroa eta behe-laino itsuak ez zuen metro betera ikusten lagatzen, baina apustulariak abiatuak zirela jakinarazi zuen Aitzol Urain esateriak, eta errepide bazterrera batu zen jendea. 11:00ak pasatxo ziren.

Udaletxeko plazatik irten ziren bi apustulariak, eta korrika bost kilometro inguruko bidea egin ostean, kana erdiko bi enbor ebagi behar

izan zituzten Lizarpen. Antxitxika, Mikel Ugartetxea Rubiok aurrea hartu zion Saroberi, eta Alkortatik gorako azkeneko aldatz gogorra oinez egin bazuen ere, minutu bateko aldea atera zion aurkariari Lizarpeko gainean (28:30eko denbora). Arnas estuka eta zorabiatutako itxuran iritsi zen Sarobe gora, baina arnasari buelta eman, eta aizkoran, gehi-go zela erakutsi zuen. 40:43ko denbora behar izan zuen Sarobek proba osoa amaitzeko, eta 45:38koa, Rubiok. Bukaeran, eta apustuaren inguruan sortutako giroa laguntzeko, txorizo eta hirugiharre ogitartekoak banatu zituzten Lizarpe gastronomia elkarteko lagunek. **Argazki gehiago eta bideoa www.elgoiBAREN.net atarian dituzue.**



Sarobe, erdi zorabiatuta, aizkoran hasi zen unean.




Rubio aizkoran, Ugaitz Mugertza aizkolaria aholkulari duela.



Sarobe, arnas estuan, Alkortatik gorako azkeneko maldan.



Mikel Ugartetxea 'Rubio' ahalegin betean azkeneko aldatzean.



Mikel Ugartetxea eta Unai Salegi, garaikurrekin.

Aitor Arrieta elgoibartarrak 15. lekuan amaitu zuen San Migelgo Rallysprinta

Ander Vilariñok errekor berria ezarri zuen

Aitor Arrieta elgoibartarrak San Migelgo Rallysprintean hartu zuen parte joan zen zapatuan, eta sailkapen nagusiko 15. postuan amaitu zuen proba. Bere mailan, bestalde, bigarren lekuan geratu zen, Etxeberriko Urtzi Beristainen atzetik. Bigarren aldiz hartu du parte gidari elgoibartarrak proba honetan, eta egindako lanarekin "gustura" geratu dela adierazi du. Guztira, 46 autok amaitu zuten lasterketa.

Garaipena eta errekorra, Vilariñorentzat

Ander Vilariñok irabazi zuen San Migelgo Rallysprinta, eta errekor berria (6:41:1) ezarri zuen gainera. Hiru erlojupekoetan azkarrena izan zen Ander Vilariño, eta hiruretan zazpi minututik jaitea lortu zuen. Euskadiko Rallysprint Txapelketako bost proba jokatu dira orain arte, eta denak irabazi ditu Ander Vilariñok.



31 umek jaso zituzten dominak Finalista Egunean



31 umek jaso zituzten dominak joan zen domekan, Morkaikok antolatutako Finalista Egunean. Plaza Handitik abiatu ziren ume eta gurasoak Idotorbe-San Pedrorra, eta euria egin zuen arren, partaideen erdiak, gutxi gorabehera, oinez joan ziren. Ondoren, urtean zehar eginitako mendi kopuruaren arabera dominak banatzeari ekin zioten. Pako Iriondo izaten da urtero dominak ematen, baina aurten ezin izan zen egon, emaztearen heriotzagatik. Pako Iriondo gogoan zutela banatu zituzten dominak Morkaikoko kideek. Azkenik, hamaiketako egin zuten.

EMAITZAK

ESKU PILOTA Lagunak Txapelketa

Alebinak

Odria **18** - Aranberri **10**

Aranberri **16** - Uruzola **18**

Odria **15** - Uruzola **18**

Beraza **18** - Vargas **5**

De la Arada **18** - Vargas **13**

Beraza **8** - De la Arada **18**

Infantilak

Agirrebeña **18** - Loidi **9**

Maiztegi **3** - Calvo **18**

Gurrutxaga **18** - Arriola **4**

Leiaristi **4** - Larrea **18**

FUTBOL 7

Roketxe **2** - Smackdown **10**

Kilimon **3** - Tibet **0**

The gladiator **1** - Palmeiras de bollo **11**

Aston birra **1** - Pauperrimo **1**

Lagun Taldearen zozketa

Elgoibarko Lagun Taldeak bi lagunentzako afaria zozketatu du, eta 950 zenbakia izan da irabazlea. Sari-dunak 943 742 089 telefonora deitu dezake.

Alkorta eskubaloi taldeak ez du mailaz igotzea lortu

Alkorta taldeak ez du lortu Bigarren Nazional mailara igotzea. Joan zen asteburuan jokatu zuen igoera faseko ligaxkako azken partida Bergararen kontra, eta galdu egin zuen. Dena dela, Sanloko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete jokalariei, entrenatzaileei eta delegatuei, aurten egindako denboraldiagatik.

186 umek hartuko dute parte kirol udalekuetan

Ekainaren 28an hasiko dira Kirol Patronatuak antolatutako udalekuak, eta aurten, 6 eta 13 urte bitarteko 186 umek hartuko dute parte. Kirola eginez, lagunarteko giroan, partaide-tza eta naturarekiko errespetua sustatzea eta ondo pasatzea izango da udalekuen helburua. Astelehenetik barixakura, hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute parte hartzaileek, 9:30etik 12:30era: mendiko bizikleta, tenisa, futbola, saskibaloia, uretako jolasak etabar.

‘Ez dago etxean’ izenburuko liburua kaleratu du Jokin Urain idazle presoak

Ihes egiteko nahiari buruzko gogoetak batu ditu liburuan

Kartzelako literaturaren historia eta ihes egiteko nahiari buruzko gogoetak jaso ditu Jokin Urain idazle presoak (Mendaro, Gipuzkoa, 1959) *Ez dago etxean* izenburuko lanean. 1986. urteko preso dago Espainiako kartzeletan, eta bosgarren liburua du hau: Izaina (Amnistia- ren Batzordeak, 1990) eta Adlotse (Txaparta, 1992) nobelak, *Gatibu sortu nintzen* kronika liburua (Susa, 2000), eta *Errotarria* saiakera (Susa, 2006). Bera da preso egonda liburu gehien idatzi dituen euskal idazlea.

1937tik 2009ra bitartean euskal presoek sortutako literaturaren kontaketa egin du Urainek bere azken lanean, bilketa lana eta sorkuntza uztartuta. “Ihesa eta kartzela, espetxea eta literatura, giltzapeko bizimodua. Horiek dira esku artean dituzun testu hauen zutarrak. Eta ihesaldi eta kartzelako literatura modernoa lehenetsi dira, modernotzat hartuz, Espainiako Gerra Zibil garaitik hona-



ko euskal presoek historia eta testu produktzioa”, dio Urainek liburuko *Jalhi hadi kanpora* izeneko lehenengo testuan.

“Kartzelako euskal literaturaz idatzi den liburu osatuena da”, esan du Jose Luis Otamendi idazle eta editore azpeitiarrak. Liburua idazteko, senide eta adiskideen laguntza ezinbestekoa izan du informazioa biltzeko, baita preso egondako beste hainbatena eta zenbait idazle adiskiderena ere.

Kirol argazki lehiaketa antolatu dute Elgoibarren

Kirol argazki lehiaketa antolatu dute Elgoibarko Udala Kirol Patronatuak eta Gazteria Sailak, Ongarri argazkilari elkartearekin elkarlanean. Interesatuak gehienez ere lau argazki aurkeztu ahal izango dituzte, uztailaren 18a baino lehen, eta lan guztiak originalak izan beharko dute derrigor. Paperean egindako argazkiak izan beharko dira, zuri-beltzezkoak nahiz kolorekoak. Informazio gehiagorako deitu kiroldegiko telefono zenbakira: 943 744 415.

Dozena bat elgoibartar, soinu joleen Trintxerpeko topaketan

Joan zen zapatuan soinu joleen topaketa bat egin zuten Trintxerpen, eta Euskal Herri osoko 21 eskolako 300 ikaslek parte hartu zuten bertan. Tartean, Elgoibarko dozena bat lagun ere izan ziren. Pasaia Musikalek antolatzen duen Musikaz Blai programa horren barruan, eguerdian, kontzertua eskaini zuten soinu jole gazteek.

Udalak diru laguntzak emango ditu barnetegietan euskara ikasteko

Euskara ikastera barnetegi batera doazenei diru laguntzak emango dizkie Elgoibarko Udalak. Barnetegiko egonaldiaren gastu osoaren %40 (gehienez, 180 euro) ordainduko die Udalak ikasle eta langabetuei, beti ere barnetegiko gastua 600 eurotik beherakoa denean. Gastua 600 eurotik gorakoa bada, Udaleko euskara batzordeak banan-banan aztertuko ditu kasuak, zer egin erabakitzeko. Eskeraerriaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira Udaleko Euskara zerbitzuan (Kultur etxeko lehenengo pisuan). Informazio gehiagorako deitu 943 744 366 telefono zenbakira.

Umorea gaindosia Mendaroko bertso saioan



Dozenaka lagun batu ziren zapatuan Mendaroko Udaleko Kultura Sailak antolatu zuten bertso saioan. Ainhoa Agirreazaldegia, Sustrai Colina, Sebastian Lizaso eta Joxe Agirrek jardun zuten bertsoan, Juanito Loiola gai jartzailearen esanetara. Gai asko lantzen zituzten bertsolariak, baina umorea nagusitu zen gairik gehienetan, eta txalo zaparrada beroekin eskertu zuten entzuleek.

Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du bihar San Bartolome parrokian

Elgoibarko musika bandaren 125. urteurrena uztailean ospatuko dute

Bergarako Udal Musika Bandak kontzertua ekainiko du bihar San Bartolome parrokian, Elgoibarko Udal Musika Bandaren 125. urteurrenako ekitaldien barruan. Kontzertua 22:00etan hasiko da, eta doan izango da. Bergarako musikariek bost pieza eskainiko dituzte, Alfredo Gz. Chiriaqueren zuzendaritzapean.

1832an sortutako banda

Bergarako Musika Banda 1832ko otsailaren 19an sortu zen, eta ordutik gaur egunera arte hainbat sari irabazi izan ditu. 1905ean Eskualdeko banden lehiaketa irabazi zuen Eibarren, eta 1913an Euskal Herriko banden txapelketa eskuratu zuen Irunen. Bost urte geroago, Espainiako musika banden txapelketa antolatu zuten Bilbon, eta hirugarren saria eskuratu zu-



ten. Bergarako Udal Musika Bandak 2007an ospatu zuen 175. urteurrena.

Gaur egun 76 musikaririk osatzen dute taldea, eta urtean hamabi kontzertu eskaintzen ditu.

Bestalde, Elgoibarko Musika Bandak ekainaren 20an eskainiko du hileroko kontzertua Herriko Antzokian, eta uztaileko lehen asteburuan egingo dute 125. urteurrenako ospakizun ofiziala.

‘Expresion sonora’ taldeak kontzertua emango du gaur iluntzean Madalako parkean



Elgoibarko *Expresion Sonora* musika taldeak kontzertua eskainiko du 20:00etatik aurrera, Madalako parkean. Nostalgikoeak, beraz, 60ko hamarkadako musika estiloaz gozatzeko aukera izango dute. *Expresión Sonora* taldea Gabriel Agirregomezkorta, Luis Mari Arakistain, Patxi García eta Alfonso Guilló elgoibartarrek sortu zuten 1969an, eta bi urteetan ospe handia hartu zuten. Besteak beste, Beatles, Rolling Stones edo Animals taldeen bertsioak egiten dituzte elgoibartarrek. Madalako guneari bizitasuna emateko ekitaldien barruan antolatu du Udalak *Expresion Sonoraren* kontzertua.

Sanmigeldarren Eguna domekan Aiastian

Datorren domekan, ekainak 13, Sanmigeldarren Eguna ospatuko dute Aiastian. 12:00etan meza izango da hildako auzotarren omezez, eta ondoren, salda eta txoriaz banatuko dituzte. 13:00etan pilota partida jokatu dute Kepa eta Loiolak, Lizarralde eta Arribillagaren kontra. Ondoren, bazkaria egingo dute, eta arratsaldean, dantzaldia izango da Elustondo anai arrebeekin.

San Bartolome jaietako programaren azala

San Bartolome jaietako programazioari azala jartzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. 18 urteetik gorako edonork hartu dezake parte, norberak nahi duen teknika erabiliz. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du, eta bigarrenak 300 euro eskuratuko ditu.

LANA

ESKAERA

- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduko nituzke, astean zehar edo asteburuetan, interna bezala edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Neska, ikaslea, umeak zaintzeko prest. Ekainean, uztailean eta abuztuan. ☎ **630 700 272**
- Neska lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: tabernak, portalak... ☎ **663 786 976**
- Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, adinakoak zaindu edo tabernan lan egingo nuke. Papelak legez ditut. ☎ **662 247 584**
- Mutila baserrian, sukaldari laguntzaile edo nagusiak zainduz lan egiteko prest. ☎ **686 077 316**
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **662 247 678**
- Neska abuztuan edozein lan egiteko prest: garbiketa lanak, nagusiak edo umeak zainduz... ☎ **609 217 705**
- Mutila lanerako prest. Sukaldari arabiarrak naiz, eta sukalde laguntzaile moduan lan egin edo okin lanak egingo nituzke. Etzeko lanak edo nagusiak ere zainduko nituzke. ☎ **609 217 705**
- Emakumea nagusiak edo haurrak zaintzeko edo tabernan lan egiteko prest. ☎ **609 217 705**
- Neska sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. Bost urteko esperientzia. ☎ **600 020 985**
- Mutila zerbitzari lanak egiteko prest. 13 urteko esperientzia daukat. Hemengoa. ☎ **699 282 308**
- 50 urteko emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. ☎ **626 206 635**
- DBHko gaztelania eta matematika klaseak emango nituzke ekainean eta uztailean. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**
- Neska lanerako prest. Tabernak, portalak edo elkar-teak garbitu edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan. ☎ **699 609 190**

- Emakumea lanerako prest. Interna moduan edo orduka. Esperientzia daukat. ☎ **628 014 327**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **636 120 425**
- Emakumea garbiketa lanak egin, eta nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **686 234 612**
- Emakumea astean zehar lan egiteko prest. Interna moduan, etxeak garbitzen edo umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ **666 771 701**
- Gizona sukaldari laguntzaile, lorazain edo igeltsero laguntzaile lanetarako prest. ☎ **688 647 664**

ESKAITZA

- Familia euskaldun batek Au-Pair bat behar du beraiekin bizitzeko. Irailetik uztaiera. mirenlondon@hotmail.com
- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzaile behar dira. ☎ **943 743 196**
- Kamareroa behar da. ☎ **634 799 201**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea alokatzen dut Gasteizen, ikasleentzako. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berritua, erdigunean. ☎ **689 789 743 / 943 741 898**
- Etxea salgai Elgoibarren, erdigunean. Berritua, eguzkitsua, altzariekin, igogailua eta ganbararekin. 38 milioi pezeta. ☎ **652 727 631**
- Etxea salgai Mendaron. Mendarozabal plazan. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. ☎ **943 033 493**
- Pisua salgai Pedro Muguruza etorbidean. Berritua, altzariekin. Ganbara eta garajea ditu. ☎ **678 883 051 / 943 742 808 (gauetz)**
- Etxea alokatzen dut Benidorm-en. Erdigunean, hondartzatik gertu, erosoa, aire egokitua eta igerilekuarekin. ☎ **943 740 628**
- Bikote batek etxea hartuko luke alokairuan. Premiazkoa. ☎ **606 169 667**

- Emakumea alokatzeko etxe bila. Bi logela, eta kontratadorekin. ☎ **600 020 985**
- Etxea hartuko nuke alokairuan, bikotea eta ume barentzako. ☎ **699 282 308**
- Etxea salgai Elgoibarko erdigunean. Eguzkitsua, eta logela guztiak kanpoaldera begira. Bi logela eta egongela. Berritua. 133.000 euro. ☎ **620 748 635**
- Etxea salgai. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Berritua. Sukalde handia, bi logela eta egongela. Prezio onean. ☎ **699 209 844**

GARAJEAK

- Garajea salgai Urasandiko Anayak edifikazioan. ☎ **620 856 768**
- Garaje itxia salgai Jausoron. ☎ **652 727 631**
- Garajea alokatzen da Pedro Muguruza 11n. ☎ **605 775 398**
- Autoa edo furgoneta sartzeko moduko garajea alokatzen dut Santa Ana kalean. Merke. ☎ **646 966 198**

BESTELAKOAK

- Bi zintzilikario dituen katea galdu dut. Balio sentimentala handia dauka. Saritu egingo da. ☎ **656 309 677**
- Haurarentzako sehaska behar dut. ☎ **657 083 020 / 943 530 644**
- AC/DC taldeak ekainaren 28an Bilbon emango duen kontzerturako sarrerak behar ditut. ☎ **671 841 563**
- Volkswagen furgonetaarentzako bizikletak garraiatzeko erosiko nuke. ☎ **671 841 563**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburrak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak
Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro

Jarri ezazu zure publizitatea

B
BARREN
astekarian
943 743 704





• Zorionak, **potolo**, igandean urtebete egingo duzulako. Etxekoen, eta bereziki, Gorkaren partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure 3. urtebetetzear. Maitasunez, aitatxok, amatxok eta ahizpa Lorenak.



• Zorionak, **futbolari**, 8 urte egin dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Paula**! Gaur, 9 urte! Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Nerea**, astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Segi horrelako sorgina izaten. Etxekoak, bereziki, Ane eta Lolita.



• Zorionak, **Endika**, zure lehenengo urtebetetzear. Patxo handi bat etxekoen, eta bereziki, Markelen partez.



• Zorionak, **Irantzu**! Etxekoen, lagunena eta, bereziki, Axularren eta Lukenen partez.



• Zorionak, **Meliton txiki**, zure lehenengo urtebetetzear. Etxeko guztien partez, muxu handi bat.



• Zorionak, Iruñeko **Aitor**, bihar 2 urte egingo dituzulako. Etxekoen eta, bereziki, ahizpa Mirenen partez.



• Zorionak, **Alex**, asteartean 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Mikelen partez.



• 50 urte egin dituzue elkarrekin! Zorionak, eta ondo pasatu bihar familiakoekin.



• Zorionak, **bikote**, zuen urrezko ezteietan. Zoragari pasatu genuen. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **losu, Leire eta Izeba Rosal** Mikelen partez.

OSPAKIZUNAK



Lan Bodegak eskerrak ematen dizkio bere enbajadoreari, Elgoibarren egindako lanagatik.

Erretratu bakarreko

agurra: 2 euro.

Argazki bikoitza: 3 euro.

Hirukoitza: 5 euro.

Handia: 6 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. **BARRE**neko

bulegora 12:00ak

baino lehen,

edobarren@elgoibarkoizarra.com

e-postara bidali.

OKINDEGIA

13 domeka BOLINTXO

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 11 Fernandez
- 12 Etxeberria (Santa Ana)
- 13 Etxeberria (Santa Ana)
- 14 Zabaleta
- 15 Etxeberria (Errosario)
- 16 Ibañez
- 17 Garitaonandia-Bidasolo
- 18 Etxeberria (Santa Ana)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBAREN.net



11 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka egitasmoa

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa.

Dantza

20:00 'Biraka' dantza taldearen ikuskizuna

Biraka dantza taldeak ikasturte amaierako emanaldia eskainiko du. Herriko Antzokian.

Musika

20:00 'Expresion Sonora'

Elgoibarko *Expresion Sonora* musika taldeak kontzertua eskainiko du Madalako parkean.

12 zapatua

Informazio mahaiak

11:00 Organo emaileen informazio mahaiak

Alcer Gipuzkoa erakundeak organo emaileei buruzko informazio mahaiak jarri ditu bihar, Plaza Handian.

Ɖilar ikastetxearen agur-festa

13:00 Meza

San Bartolome parrokian.

14:00 Bazkaria

16:00 DJ musika saioa

Musika

22:00 Bergarako musika bandaren kontzertua

Elgoibarko Udal Musika Bandaren 125. urteurreneko ospakizunen barnean, Bergarako Udal musika bandak kontzertua eskainiko du San Bartolome parrokian. Sarrera doan izango da.

13 domeka

Kirola

10:30 'Elgoibar bi erroberatan'

Elgoibarko Herri Eskolak *Elgoibar bi erroberatan* ekimena antolatu du. Plaza Handitik irtengo dira partaideak bizikleta hartuta, eta Sallobentera joango dira.

Kirola

12:30 Herri kirolen ginkana

Zubibai elkarteak antolatuta, herri kirolen ginkana egingo dute Altzolako frontoian. Soka tira, lokotx bilketa, txinga eroatea, eta zaku lasterketa izango dira besteak beste.

Ospakizuna

12:30 Sanmigeldarren eguna

Aiastia-San Migel auzoan.

Tailerra

10:00 Familia konstelazioak

Kemen belardendak antolatuta, goizez eta arratsaldez izango da.



LUDOTEKAKO EKINTZAK

Ekainaren 16an,
baratze batera irteera!
Bertan garaiko barazkiak
landatzen ikasiko dugu,
herriko nagusienek
lagunduta.
Animatu eta izena eman!



GAZTELEKUKO EKINTZAK

DBHIEKO GAZTEEK EKINTZA
BEREZIAK ANTOLATU DITUZTE:

EKAINAK 11, OSTIRALA:
PING PONG TXAPELKETA
EKAINAK 13, IGANDEA:
TORTILLA LEHIAKETA

BI EGUNETAN 17:00ETAN HASIKO GARA.
ANIMATU ETA PASATU GAZTELEKUTIK.

IZEN EMATEAK ZABALIK DAUDE!

Erretratu zaharra



1970

Ignacio Izagirrek ekarri digu aste honetako erretratu zaharra. Data zehatza gogoan ez badu ere, orain 40 bat urte inguruko argazkia dela uste du, Bizkaia aldera egindako ibilaldi baten harira ateratakoa. Erretratua txangora irten aurretik atera zuten, El-goibarren bertan, bolatokian. Argazki honetako asko ez dira, ez, ibili gabeak. Gogora ditzagun haien izenak: **Gorengo ilaran:** Victor Olaberria, Alex Garate, Agustin Barrutia, Juan Manuel Zubiaurre, Jose Luis Bastida eta Patxi Garcia. **Bigarren ilaran:** Ignacio Izagirre bera, Paco Gurrutxaga, Miguel Angel Mujika, Enrique Loiola, Luis Arakistain, Teodoro San Martin eta Juan Maria Osoro. **Hirugarren hilarako boskotea:** Aizpurua, Alberto Ajuria, Angel Agirregomezkorta, Fernando Zubiaurre (†), eta Rufino Eizagirre. **Laugarren hilaran,** egunkaria eskutan duenetik hasita: Jose Luis Arriola, Isidor Sodupe, Angel Arriaga, Jose Maria Etxaniz, Anfonso, Jose Antonio Alberdi eta Agustin Rubio. **Beherengo ilarakoak:** Imanol Sodupe, Jose Antonio Gonzalez, Isidro Valenciano, Jose Urain, Jesus Mari Etxaniz, eta Juan Manuel San Martin.



**Emakume ekintzailea zara?
Gustatuko litzaizuke lanen bat izatea?
Sortu ezazu zeure lanpostua, negozio bat abian jarrita
Zure ametsa, proiektua, etorkizuna
Zuk egin dezakezu. Guk lagunduko dizugu lortzen.**



Doako hitzaldi informatiboa Eibarko Portalea kultur etxean, ekainaren 16an, asteazkenean, 19:00etatik aurrera
Informazio gehiago lortzeko nahiz izena emateko: ☎ 943 200 041 - nagore@somosasesores.com



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L., janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Quantum scio (alergiak...). Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta. San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031 Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 748 593 (Ildoa) - 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

Pakene Ongizate Integraleko zentru berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasangarritasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 740 770

Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 741 795

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.

- Neurriren egindako plantilak.

- Hanka diabetikoen zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko

hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behe

Tel: 943 741 645

Ordutegia: 9:30-13:30 / 15:30-19:30

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Jausoro, 6 behe.

Goiz eta arratsalde.

Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

Andoni Schmidt Larrañaga

Etxerako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajek. Ekipo portatila. Ordua eskatu.

San Roke 8, behe - Tel.: 689 926 016

Kontsulta ere badaukagu.

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 743 734

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21

Egunero: 9:30-13:00

16:30-20:00

Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behe (Elgoibar)

Tel: 943 743 679

Zeharkalea, 8 behe (Ermua)

Tel: 943 177 134

irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.

Aita Agirre enparantza, 5 behe.

Tel: 943 530 053 - lekueder@infomed.es

Beitia Arriola


- Odontologia orokorra eta ortodontzia

- Haurren Hortzagin programa

- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behe

Tel: 943 531 869



LERUN TXIKI

PROMOZIOAK

Pabiloi, bulego eta lokal komertzialak salgai ELGOIBARREN
A8 autobidetik 700 metrotara



605 703 289